

Nola lantzen zuten larrua erromatarrek?



Erantzuna:

Marimar

Historia errekreatailea

Kaixo, Marimar naiz eta antzinan larrua nola lantzen eta josten zen azalduko dizuet. Bai, poltsak eta legionarioak behar zituzten zapatak adibidez.

Orduan, behin puntzoia harturik erromatarrek larruan zuloak egiten zituzten ondoren josi ahal izateko. Jarraian hari bat ezkoztatzen zuten, hau da, hari argizaria ematen zuten, eta aria zuloetatik igarotzen zuten bata bestearekin lotuz. Berez horrela josten zen larrua antzinan.